



Arartekoaren ebazpena, 2011ko uztailaren 19koa. Horren bidez, Olabazarreko A-4609 errepidean espaloi berria eraikitze lanen gauzatzean irisgarritasunari buruzko araudiaren ez betetzearen gaineko jarduera amaitutzat jo da.

Aurrekariak

1. Laudioko ezintasunen bat duten pertsonen elkarteak erakunde honetan irisgarritasunaren gaineko araudiaren ez betetze bat salatu zuen. Ez betetzea Olabazarren, Amurriorantz doan A-4609 errepidean, espaloi berria egiteko eraikuntza lanetan gertatu zen.
2. Kexa izapidetzeko onartu ostean, Ararteko erakundeak Aiarako Udalari behin baino gehiagotan eskatu zion gauzatutako lanak ikuskatu zitzaizkien, salatutako gertakarien egiazkotasuna egiaztatze eta, beharrezkoa izanez gero, zegozkion neurriak hartu zitzaizkien mugikortasun urria duten pertsonen eraikitako oinezkoentzako ibilbide berria modu autonomoan erabiltzeko aukera izan dezaten eta arriskutsua izan ez dadin.
3. Hala eta guztiz ere, zentzu horretan hainbat bider errekerimenduak egin diren arren, udaleko aginpideak jakinarazi digu ikuskapen bisitaldi horiek ez direla egin eta lana aurkeztutako proiektuarekin bat datorren edo ez egiaztatze informaziorik ez dagoela.

Gogoetak

1. Hirigintzako oztopoak kentzearen arloan hizpide ditugun urbanizazio elementuari aplikatu beharreko arauak abenduaren 4ko 20/1997 Legea, irisgarritasuna sustatzeari buruzkoa, eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak, dira.
2. Legeak eredu berri baten alde egiten du, *“pertsonak ingurune sozial eta komunitarioan osoki eta libre garatzen direla bermatzea izanik helburua. Horretarako, gure erkidegoko pertsona guztiak ingurune fisikora eta komunikaziora iristen direla bermatu behar da, batez ere, mugaren bat duten pertsonak.”*



3. Ildo horretatik, irisgarritasuna sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, honakoa dio 2. artikuluan: *“Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan ezarriko da, nortasun fisikoa edo juridikoa duen edozein subjektu publiko zein pribatuk egiten dituen jardueretan, hirigintza, eraikuntza, garraio eta komunikazio arloetan.”*
4. Xedapen hori garatze aldera, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. eranskineko 1. artikulua hiri inguruneke irisgarritasun baldintza teknikoak arautzen ditu eta, bereziki, espazio publiko eta ekipamendu komunitarioetakoak. 3.1. artikulua araberan, honako hauek har daitezke urbanizazio elementu gisa: *“urbanizazio obretako edozein elementu; urbanizazio obrak honako hauek izango dira: zoladura, saneamendua eta estolderia, energia elektrikoa, gasa, telefonoa eta telematika banatzea, argiteria publikoa, lorategiak, baita hirigintza-plangintza garatzeko tresnen argibideak gauzatzen laguntzen duen oro ere.”*
5. Ondoz ondoko txostenen bidez, erakunde honek askotan adierazi du udalak funtsezkoak direla, hirigintza-antolakuntzaren arloko erakunde eskudun gisa, hiri ingurunean irisgarritasun arauak betetzeari dagokionez jarraipen eta kontrol lanak egiteko.
6. Ezinbestekoa da Aiarako Udalak onartzea arauak, partikularrez gain, administrazioa bera ere behartzen dutela horiek betetzera, legezketasun printzipioak bideratu behar baititu botere publikoen jardura guztiak.

Ondorioak

Erakunde honen ustez, esku artean dugun kasuan, Aiarako Udalak, ahalik eta azkarren, beharrezkok diren neurriak hartu behar ditu gauzatutako lanak onartutako proiektuarekin bat datozen egiaztatzeko dagozkion frogaketak egite aldera eta, hala badagokio, antzeman daitezkeen irregulartasunak konpondu. Horrela, lehen aipatutako araudian xedatutakoa beteko litzateke.

